

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

## 5240

*EBAZPENA, 2011ko urriaren 18koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak ematea arautzen duen 2011ko irailaren 27ko Ebazpena zuzentzeko dena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Aipatu bezalako hutsak atzeman dira ondoko ebazpena argitaratzeko testuan: 2011ko irailaren 27ko Ebazpena, laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak ematea arautzen duena (2011ko urriaren 7ko EHAA, 192. zk.). Beraz, zuzendu egiten dira:

Xedapenetan, 2011/4853 dokumentuaren 2. orrialdean, honakoa dioenean:

«3. artikulua.– Gehienezko zenbateko osoa.

Ebazpen honen helburua betetzeko, 265.000 euro erabiliko dira guztira, eta horiek honakoari egotziko zaizkio: «Laneko Segurtasuna eta Osasuna» 3113 Programa, «Zuzendaritza Nagusia» 01 Zerbitzua; hain justu ere «Eragiketa arruntetarako transferentzia eta diru-laguntzak» izeneko IV. kapituluaren barruan.»

Honako hau esan behar du:

«3. artikulua.– Gehienezko zenbateko osoa.

Ebazpen honen helburua betetzeko, 657.000 euro erabiliko dira guztira, eta horiek honakoari egotziko zaizkio: «Laneko Segurtasuna eta Osasuna» 3113 Programa, «Zuzendaritza Nagusia» 01 Zerbitzua; hain justu ere «Eragiketa arruntetarako transferentzia eta diru-laguntzak» izeneko IV. kapituluaren barruan.»

Xedapenetan, 2011/4853 dokumentuaren 5. orrialdean, honakoa dioenean:

«12. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 75 emango da gehienez 2011ko ikasturtean garatu beharreko jarduerentzat.»

Honako hau esan behar du:

«12. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100 emango da gehienez 2011ko ikasturtean garatu beharreko jarduerentzat.»

Halaber, ondoko xedapen gehigarria eransten da, akats baten ondorioz, aipatu ez zena.

## «XEDAPEN GEHIGARRIA

Minimis araua.— Ebazpen honetan ezarritako laguntzek honako arauak errespetatu beharko dituzte: EE Ituneko 87. eta 88. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari dagokionez (2006-12-28ko EBAO), 2006ko abenduaren 15eko Batzordearen 1998/2006 (EE) Erregelamenduan ezarritako minimis arauak, eta Europar Batasunaren markoan arlo horretarako emandako beste gida-lerro eta xedapen batzuk. Beraz, Osalanek beharrezko mekanismoa prestatuko du, aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta aurtengo ekitaldian, «de minimis» laguntzen kontzeptupean, ebazpen honetan aurreikusitako laguntzen erregimenaren onuradunek 200.000 eurotik gorako laguntzarik jaso ez dezaten.»

Azkenik, de minimis erregela aipatu ez zenez, I.B eranskina, Zinpeko Aitorpen Eredua (Pertsona Fisikoa), eta I.C eranskina, Zinpeko Aitorpen Eredua (Pertsona Juridikoa), osorik ematen dira.

Barakaldo, 2011ko urriaren 18a.

Osalaneko zuzendari nagusia,  
PILAR COLLANTES IBÁÑEZ.

2011ko urriaren 31, astelehena

## I.B ERANSKINA

## ZINPEKO AITORPEN EREDUA (PERTSONA FISIKOA)

\_\_\_\_\_, jaunak/andreak, \_\_\_\_\_ NAN-zk. duenak.

Honako hau aitortzen du:

Deialdi honen aurreko bost urteetan, pertsona fisikoak ez duela zigorrik jaso, epai irmoren bidez, laneko segurtasun eta osasunaren alorrean delituak egin izanagatik, eta ez duela zehapen irmorik jaso arlo horretan arau-hauste administratibo oso larriak egin izanagatik.

Proiektu hau garatzeko, egun arte, laguntza jasotzeko eskaera honetaz gain, jarraian agertzen d(ir)en erakunde publiko edo pribatu(ar)en diru-laguntzak eskatu edo lortu dituela:

| Eskaera-eguna | Erakundea | Programa | Eskatutako zenbatekoa | Emandako laguntza |
|---------------|-----------|----------|-----------------------|-------------------|
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |

Laguntza-eskabide honetaz gain, azken bi ekitaldi fiskaletan eta ekitaldi honetan, jarraian agertzen d(ir)en erakunde publiko edo pribatu(ar)en ondoko laguntzak edo diru-laguntzak, minimis arauari lotutakoak, eskatu edo lortu dituela gaur arte:

| Eskaera-eguna | Erakundea | Programa | Eskatutako zenbatekoa | Emandako laguntza |
|---------------|-----------|----------|-----------------------|-------------------|
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |

Halaber, erakunde publikoetan zein pribatuetan proiektu honetarako eskatzen dituen laguntza guztiak jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Pertsona fisikoak ez duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzaren baten ondorioz hasitako itzulketa- edo zehapen-prozedurarik, edo, gisa horretako prozeduraren batean egonez gero, diru-laguntza eman eta/edo jaso baino lehen amaituko duela justifikatzera konprometitzen dela.

Pertsona fisikoa ez dela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galaraz liezaiokeen administrazio-zehapenik edo penalik betetzen ari, eta ez duela horretarako inhabilitatzen duen legezko debekurik jaso.

Zehapenak ezarritako epean, pertsona fisikoak ez duela generoarekiko diskriminazioaren ondoriozko zehapen penal edo administratiborik eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legeren ondoriozko debekuaren zehapenik izan.

\_\_\_\_\_, 2011ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(a).

Izenpea

2011ko urriaren 31, astelehena

## I.C ERANSKINA

## ZINPEKO AITORPEN EREDUA (PERTSONA JURIDIKOA)

\_\_\_\_\_, jaunak/andreak, \_\_\_\_\_ NAN-zk. duenak.  
 \_\_\_\_\_ erakundearen ordezkaritzan, \_\_\_\_\_ IFZ

Honako hau aitortzen du:

Deialdi honen aurreko bost urteetan, erakundeak ez duela zigorrik jaso, epai irmoaren bidez, laneko segurtasun eta osasunaren alorrean delituak egin izanagatik, eta ez duela zehapen irmorik jaso arlo horretan arau-hauste administratibo oso larriak egin izanagatik.

Laneko Arriskuen Prebentzio Plana eta lan-arriskuen ebaluaketa egin dituela, eta urteko prebentzio-jarduera prestatua duela.

Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, aukeratu den prebentziorako antolaketa-modua honako hau dela: \_\_\_\_\_ (\*).

Antolaketa-moduek prebentzio-sistema eskatzen badute, sistema horren auditoria egin dela, betiere 39/1997 Errege Dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoari jarraiki (\*\*).

Proiektu hau garatzeko, egun arte, laguntza jasotzeko eskaera honetaz gain, jarraian agertzen d(ir)en erakunde publiko edo pribatu(ar)en diru-laguntzak eskatu edo lortu dituela:

| Eskaera-eguna | Erakundea | Programa | Eskatutako zenbatekoa | Emandako laguntza |
|---------------|-----------|----------|-----------------------|-------------------|
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |

Laguntza-eskabide honetaz gain, azken bi ekitaldi fiskaletan eta ekitaldi honetan, jarraian agertzen d(ir)en erakunde publiko edo pribatu(ar)en ondoko laguntzak edo diru-laguntzak, minimis aruari lotutakoak, eskatu edo lortu dituela gaur arte:

| Eskaera-eguna | Erakundea | Programa | Eskatutako zenbatekoa | Emandako laguntza |
|---------------|-----------|----------|-----------------------|-------------------|
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |

Halaber, erakunde publikoetan zein pribatuetan proiektu honetarako eskatzen dituen laguntza guztiak jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Erakundeak ez duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzaren baten ondorioz hasitako itzulketa- edo zehapen-prozedurarik, edo, gisa horretako prozeduraren batean egonez gero, diru-laguntza eman eta/edo jaso baino lehen amaituko duela justifikatzera konprometitzen dela.

Erakundea ez dela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galaraz liezaiokeen administrazio-zehapenik edo penalik betetzen ari, eta ez duela horretarako inhabilitatzen duen legezko debekurik jaso.

Zehapenak ezarritako epean, pertsona fisikoak, batetik, ezin duela izan zehapen penal edo administratiborik, generoarekiko diskriminazioa egitegatik, eta, bestetik, ezin duela izan honako zehapenik Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legeren ondoriozko debekuarenik.

\* Aukeratutako prebentzioaren antolaketa-motaren arabera, enpresa eskatzaileak kanpoko prebentzio-zerbitzu baimendu bat itundu badu, zerbitzu horri buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko du, zeinetan jaso beharko baita, batetik, itun hori indarrean dela, eta, bestetik, itundutako espezialitatea.

\*\* Aukeratutako prebentzioaren antolaketa-moduaren arabera, baimendutako Erakunde Auditorearen egiaztagiria aurkeztu beharko da, eta bertan ondokoa jasoko da: enpresak prebentzio-sistemaren arauzko auditoria egin duela eta sistema hori eguneratuta dagoela.

\_\_\_\_\_, 2011ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(a)

Sinadura eta zigilua